

UDAL TITULARTASUNEN HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO IKASTETXEETAN HAURRAK ONARTZEKO PROZESUAREN BERRITASUN NAGUSIAK 2026-2027 IKASTURTERAKO

ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

[16/2024 Foru Agindua, martxoaren 1ekoa](#), Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak onartzeko prozesua arautzen duena.

6/2026 Ebazpena, urtarrilaren 22koa, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak onartzeko prozedura, 2025-2026 ikasturterako.

ESKAERAK ETA MATRIKULAK HAURRAK ONARTZEKO EPE ARRUNTEAN:

Aurreko ikasturtean egin bezala, 2026-2027 ikasturtean EDUCA plataformaren bidez egingen da Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan onartzeko prozesua. Horrek esan nahi du onarpen eskaerak plataforma horren bidez tramitatuko direla, eta familiek edo entitate titularrak zehaztutako langileek aurkeztuko dituztela.

Aurrez aurre aurkeztuz gero, eskaerak bat etorri behar du nafarroa.eus atariko tramiteen katalogoko fitxan dagoen ereduarekin eta, hala badagokio, entitate titular bakoitzaren webgunean dagoenarekin. Ondoren, entitate titularra arduratuko da eskaera hori EDUCAn sartzeaz.

- Ikaspostuen hartzaileak (1. puntua, I. eranskina, 6/2026 Ebazpena, urtarrilaren 22koa)

o 2024an eta 2025ean jaiotako haurren eta eskaera aurkeztu den unean 2026an jaiotako enpresak edo legezko ordezkariak eskatzen ahal dute ikaspostua.

Era berean, eskaera aurkeztu den unean jaiotako ez diren haurrendako ere eskatzen ahal da ikaspostua, baldin eta haurra 2026ko **lehenbiziko seihilekoan jaiotzekoa bada**. Halakoetan, horren frogagiria aurkeztu behar da (mediku-txostena). **Onarpen-prozesuan jarraitzeko, beharrezkoa izanen da haurra beranduenez maiatzaren 11n jaiotzea, eta jaiotza-ziurtagiria aurkeztea 2026ko maiatzaren 12ko 23:59ak baino lehen.**

- Onarpen prozesurako hautapen-batzordeak (3. puntua, I. eranskina, 6/2026 Ebazpena, urtarrilaren 22koa)

- Matrikulatzeko lehenbiziko epea bukatu ondoren, **Educa kudeaketa-programaren bidez** lortutako datuekin egingen dira bai onarpen-prozesuaren jarraipena eta bai **ondorengo behin-behineko onarpenak**
- **Behin betiko plantilla** ikasturtearen **lehenbiziko astea** igaro ondoren onetsiko da, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak ikastetxerako onetsitako egutegiaren arabera eta **Educa kudeaketa-programaren bidez lortutako datuekin**.
- Ikasturteko lehenbiziko astea igarotakoan Educan agertzen diren matrikulak hartuko dira erreferentziatzat hezkuntza-errefortzuko langileei dagokien dirulaguntza esleitzeko. Xede horietarako, **hezkuntza-laguntzako baliabide espezifikorik ez duten hurren matrikulak zenbatuko dira**.

- Agiriak (5. puntua, I. eranskina, 6/2026 Ebazpena, urtarrilaren 22koa)

- eskaera jaio gabeko haur bati badagokio, **2026ko lehenbiziko seihilekoan jaiotzekoa den eguna** egiaztatzen duen mediku-txostena Adopzio edo harrera prozesuan dauden hurren kasuan, haurra noiz jaio den egiaztatzen duen agiria behar da. **Onarpen-prozesuan jarraitzeko, haurrak beranduenez maiatzaren 11n jaio beharra du, eta jaiotza-ziurtagiria aurkeztu behar da 2026ko maiatzaren 12ko 23:59ak baino lehen**, lehenbiziko aukeran eskatutako ikastetxearen **erakunde titularrak zehaztutako moduan**.
- **Bizilekua egiaztatzeko**, errolda-ziurtagiriaren edo errolda-agiriaren kopia aurkeztu beharra dago, **eskabideak aurkezteko epea bukatu aurreko 90 egun naturalen barnean** egindakoa, eta hartan **haurra** eta, **gutxienez**, haren gurasoetako edo legezko ordezkarietako **bat** agertuko beharko da. Jaio gabeko hurren kasuan, gutxienez gurasoetako edo legezko ordezkarietako baten errolda ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Kontuan izanen diren errenta-tarteak, aintzat harturik **2026ko martxoaren 6an indarrean den** lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS).
- Gurasoek **ez badute familia-unitate bat osatzen per capita errenta kalkulatzeko onarpen-baremoaren** xedeetarako, **eskatzailearen errenta-mailen** frogagiriak hartuko dira kontuan kalkulu hori egiteko.

- Haurrak onartzeko prozesutik kanpo utzitako eskaerak (6. puntua, I. eranskina, 6/2026 Ebazpena, urtarrilaren 22koa).

- Kanpoan utziko dira onarpenaren behin betiko zerrendak argitaratu aurretik nahitaezko

dokumentazioa aurkeztu ez duten eskabide guztiak, bai eta eskabidea aurkezteko unean jaino ez diren haurrentako eskabideak ere, baldin eta jaiotza ez bada egiaztatu eranskin honen 5.2 puntuan xedatu bezala.

- **Onartuen behin-behineko zerrendak (8. puntua, I. eranskina, 6/2026 Ebazpena, urtarrilaren 22koa)**

o 8.4. Lehenbiziko aukeran eskatutako ikastetxean argitaratuko da nahitaezko agiriak ez aurkezteagatik baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda.

- **Onartuen behin betiko zerrendak (9. puntua, I. eranskina, 6/2026 Ebazpena, urtarrilaren 22koa). GARRANTZITSUA ETA KONTUAN HARTU BEHARREKOA:**

o Haur bat **ikastetxe batean onartu** dela ulertuko da onartutakoen **behin betiko zerrendan agertzen denean**. Haur bat 2025-2026 ikasturtean matrikulatutako eskola ez den beste batean onartzen bada, **horrek berekin dakar, automatikoki, jatorrizko eskola horretan ikaspostua galtzea 2026-2027 ikasturterako**.

- **Aukera hobetzea eta matrikula egitea. (11. puntua, I. eranskina, 6/2026 Ebazpena, urtarrilaren 22koa)**

o Aukera hobetzeko prozedura **2026ko ekainaren 12ra arte** aplikatuko da, egun hori barne.

ONARTZEKO OHIKO EPETIK KANPOKO ESKAERAK ETA MATRIKULAK

Ohiko epetik kanpoko eskaerak eta matrikulak. **(19. puntua, I. eranskina, 6/2026 Ebazpena, urtarrilaren 22koa)**

o Orobat parte hartu ahalko dute eskabideak aurkezteko ohiko epea bukatu **ondoren bizilekua aldatu dutela** frogatzen duten eskatzaileek (eranskin honen 4.1 apartatuan zehazten da ohiko epea). Xede horietarako, **frogaturiko bizileku-aldaketatzat** hartuko da **beste herri batera joatea bizitzea**. Aldaketa hori egiaztatzeko, **errolda-ziurtagiria** aurkeztu behar da, eta hartan haurra eta, gutxienez, haren guraso edo legezko ordezkarietako bat agertu behar dira.

**HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOAN ONARTZEKO 2026-2027ko
PROZEDURAREN EGUTEGIA**

Jendurreko zozketa Hezkuntza Departamentuan (bakarrik erabiliko da izan daitezkeen berdinketak ebazteko)	Zozketaren data zerbitzuen katalogoan dagokion web- orrian argitaratuko da aldez aurretik
Eskaerak aurkezteko epea	otsailaren 23tik martxoaren 6ra.
Eskaeren behin-behineko egoera (ikusgai)	Apirilaren 22a
Behin-behineko egoeraren kontrako erreklamazioak edo zuzenketak	Apirilaren 23tik 29ra
Behin-behineko zerrendak argitaratzea	Maiatzaren 5a
Erreklamazioak	Maiatzaren 6tik 12ra
Jaiotza-ziurtagiria aurkezteko epearen bukaera (2026ko martxoaren 7tik maiatzaren 11ra bitartean jaiotakoak)	maiatzaren 12an.
Behin betiko 1. zerrenda argitaratzea	Maiatzaren 15a
Lehenbiziko matrikula-epea	Maiatzaren 18tik 22ra
Behin betiko 2. zerrenda argitaratzea	Maiatzaren 26a
Matrikula egiteko bigarren epea	Maiatzaren 27a eta 28a
Behin betiko 3. zerrenda argitaratzea	Maiatzaren 29a
Matrikula egiteko hirugarren epea	Ekainaren 1a eta 2a
Aukera hobetzeko epearen bukaera	Ekainaren 12a
Itxaron-zerrenden indarraldiaren bukaera	2027ko otsailaren 12a

HAUR ESKOLEN ETA LANDA ESKOLEN ATALAREN WEBGUNEA

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/primer-ciclo-de-educacion-infantil>

Haurrak 26-27 ikasturterako onartzeko prozesuari buruzko dokumentu hauek, familiei zuzenduak, webgune honetan egonen dira eskuragarri, "Interesgarria" atalean:

- 2026-27 ikasturtean haurrak onartzeko prozeduraren egutegia
- Familiendako informazio orokorra
- 2026-27 ikasturterako onarpen-baremoa

Oharra: agiri honen edukia informazioa emateko besterik ez da; baldintzak behar den araudian argitaratutakoak dira.